

Montehermosok lau lan hautatu ditu 2018ko proiektu artistikoetarako deialdian

Aurkeztu diren 72 lanen artetik aukeratu dira, 2018ko irailetik 2019ko ekainera bitartean erakusteko asmoz, eta 4.000-6.000 euro jasoko dute

Montehermoso kulturuneak lau lan hautatu ditu 2018ko proiektu artistikoetarako deialdian, hiru lan plastiko eta ikus-entzunezko bat, 2018ko irailetik 2019ko ekainera bitartean erakusteko asmoz.

Programaren xedea da tokiko artisten proiektuak landu, erakutsi eta zabaltzea, horien bitartez jardun artistiko garaikidearen alorrean lantzen ari diren lengoia eta diskurtso berriak ezagutarazi eta horietaz hausnartzearen. Deialdi irekia egiten da horretarako, eta adituen epaimahai batek aukeratzen ditu lanak; horiek gutxienez 4.000 € jasotzen dute laguntza ekonomiko gisa, eta gehienez, 6.000 €.

Aurten 72 proiektu aurkeztu dira guztira, eta epaimahaiak lau hautatu ditu. Hauek osatu dute hautaketa batzordea: Juan Zapater, zinema kritikaria eta BilbaoArte fundazioaren zuzendaria; Enrique Martínez, kontserbatzailea eta ARTIUMen bilduma iraunkorraren arduraduna, eta Araceli de la Horra, Kultur Zentroetako burua, Kultura eta Kirol Arloko zinegotziaren ordezkotzaz. Proiektu hauek aukeratu dituzte:

– Proiektua: “Modelo y Práctica”, Iñaki Gracenea Zapirain.

Kontrol egiturek ekoizten dituzten irudiak zalantzan jartzea da gai nagusia; hain zuzen ere, egilearen azken proiektuen ardatza kontrolaren arkitektura eta espetxeen arkitekturaren historia izan dira. Saikapearen ideian oinarritutako lan multzo batek osatuko du “Modelo y práctica” lana. Montehermoso kulturunean instalatu nahi da proiektua, bildumaren ideian oinarrituz garatzen diren lanen artean erlazio ezberdinak ahalbidetzeko eta aurkezten den testuingurua kontuan hartuz. Horren haritik, proiektua Gasteizko garai bateko kartzelatik abiatuko da, estatuan eraikitako lehen kartzela zelularra izan baitzen.

Iñaki Gracenea Arte Ederretan lizentziaduna da, Euskal Herriko Unibertsitatetik, Pintura espezialitatean. Hainbat arte zentrotan jarraitu zuen prestakuntza: Arteleku (Donostia), Kunsthauß Essen, ISCP (New York), CCA (Andratx) eta John Jay College (New York). Azken urteetan, proiektu hauetan hartu du parte: Lloyd Sealy Library John Jay College/CUNY (New York), Erromako Espainiaren Akademia, *Modelos (Sistema y traducción)*, BBVA fundazioa; *Cahier de Fleurs* espetxe-arkitekturari buruzko liburua ere argitaratu du. Leku hauetan dute haren lanen bat, besteak beste: Gasteizko ARTIUM museoa, Unión Fenosa (A Coruña), Wurth arte garaikideko bilduma, Valentziako CAM, Caja Madrid, MUSAC, AENA, Espainiako Bankua eta Iruñeko Udala.

– Proiektua: “Metrópolis” Jon Gorospe Mauleon.

Proiektu honetarako funtsean bi ikuspegi hartu dira: espazio publikoen erabilera ludikoa —eta horrek unibertso digitalean duen proiektzioa— eta irudien birziklatzea eta ekonomia. Jon Gorosperen proposamenaren emaitza materiala hiri handiak erretratatzeko duten ikusizko piezen bilduma izango da. Irudiak “Streetview” (Google-rena) eta “Total View” (Baindu baliokide txinatarrarena) aplikazioak baliatuz hartu dira.

Irudiek mosaiko handiak osatzeko balioko dute: lauki-sarean jarritako irudien bilbatura trinkoak. Azkenik, hainbat liburuki —diseinu eta koadernatze berdinekoak— editatuko dira, artxiboaren, dokumentu antropologikoaren irudia indartuko dutenak.

Jon Gorospe, Gasteizko Arte eta Diseinuko goi mailako Eskolan graduatua, Artean, eta Vilnius Faculty of Arts-en (Vilnius, Lituania). Azken proiektua Maltan egin zuen. Prestakuntza artistikoa hainbat egilerekin argazkigintza/artea ikasiz osatu zuen: Pep Bonet, Juan Valbuena, José Muñoz, Matías Costa, David Jiménez eta Xavier Rivas, besteak beste. Zenbait sari eta beka lortu ditu.

– Proiektua: “Lúcu Lúcu”, Ainhoa Akutain.

Proiektua TIDAL terminotik abiatzen da, mareekin lotutako ingeles kontzeptua; hebreerazko jatorrizko hitzak konnotazio bibliko argia du, eta gaur egun pertsona paganoa aipatzen du. Alegia, fedegabea, bataiatuta ez dagoena. Paganoa (gaztelaniaz) besteren kontuak edo erruak jasan behar dituen ere bada. “Lúcu_lúcu” deritzon proiektuak espazioak izendatzea, konplexutasuna sortzea ahalbidetzen du, itsasoarekin zerikusia duten kulturen artean lotura morfologikoak eginez, hau da, Kubako pidgin-aren eta euskaratik sortutako pidgin-en artean, kultur leku inkontzienteetatik edo agerian geratzeko uzkur diren sedukzio mekanismoen bidez egiten diren loturak.

Artistak leku bakoitzean aurkitzen dituen baliabideek elikatzen dute proiektua, eskultura, argazkia, bideoa eta idatzizko lanak zein grafikoak txertatuz, eta hizkuntzaren, zeinuaren eta gizarte errepresentazioen artean tartekatzen den distantziari erreparatuz.

Ainhoa Akutain, Eskultura Saileko doktore Cum Laude.

Arte Ederretako Fakultatea, EHU, “Détournement: una posible realidad desde la praxis artística” tesiarekin. Arte jarduna akademiako irakaskuntza eta ikerkuntzarekin bateratzen du. Gaur egun EHUren Arte Ederretako Fakultateko Eskultura Sailari lotutako “*Creación en arte y estéticas aplicadas para la ciudad, el paisaje y la comunidad. Jorge Oteiza y las Síntesis de las Artes como Metodología para el reconocimiento de la función y uso de la producción del Arte en el fin de la (Post)Modernidad*” ikerkuntza taldean hartzen du parte.

– Proiektua: “Blue: contact line:Red ”, Irati Inoriza.

Partaidetzazko arte-ikerkuntza egitea da helburua, joera postheroikoen eta gure identitateak osatzen dituzten mito epikoen artean dauden tentsioez. Erreferentziatzat borroka aske olinpiarra hartzen du, tapiz gainean markatuta dagoen 9 metroko diametroko zirkulu baten barruan egiten baita borroka. Forma plastikoen bidez, borroka heroikoaren ekintzak desegituratuko ditugu, bereziki emakumeenak, identitateek oraindik epikarako indarra duten aztertzeko.

Irati Inorizak zatikatzea, errepika eta jolasa erabiltzen ditu lanerako estrategia gisa, bideoa eta performancea baliatzen duten piezak sortzeko, errealitatearen ertzean kokatuz, eta forma poetikoa hartuta. Oraingoan 3D-ko bideoetan islatuko da proiektua.

Irati Inoriza. Ikerketa eta Sormena Artean masterra, EHU; ikasketa osagarriak Tomas Rullerren zuzendutako Performance Estudioan (Brno 2013-2014). Proiektu hauetan hartu du parte, besteak beste: Tabakalerako Komisario Berriak programa (Donostia, 2015), INTRANSIT (2016), eta WHITE FARM (Sizilia, 2014).

Proiektuak hautatu ondoren, Montehermosoko taldeak eta artistak elkarrekin lan egiteari ekingo diote, lanak jendaurrean aurkeztu arte.

Montehermoso selecciona cuatro trabajos dentro de la convocatoria Proyectos Artísticos 2018

Se han seleccionado de entre 72 presentados, y se expondrán de septiembre de 2018 a junio de 2019, recibiendo entre 4.000 y 6.000 euros

El Centro Cultural Montehermoso ha elegido los cuatro trabajos, tres plásticos y uno de creación audiovisual, que expondrá entre septiembre de 2018 y junio de 2019 dentro de la convocatoria de Proyectos Artísticos 2018.

El objetivo de este programa es la producción, exhibición y difusión de proyectos de artistas del contexto local, a través de los cuales se da a conocer y reflexiona sobre los nuevos lenguajes y discursos en el ámbito de la práctica artística contemporánea. Una propuesta que se estructura a partir de una convocatoria abierta, en la que la selección de los trabajos, que tienen asegurado un apoyo económico mínimo de 4.000 € por proyecto hasta un máximo de 6.000 €, se realiza por un jurado experto.

En esta edición se han recibido 72 proyectos, de los cuales el Comité ha seleccionado cuatro. El Comité estaba formado por Juan Zapater, Crítico de cine y Director de Fundación BilbaoArte Fundazioa, Enrique Martínez, Conservador y Responsable de la Colección permanente de ARTIUM, y Araceli de la Horra, Jefatura de Centros Culturales, por delegación de la Concejala del Departamento de Cultura, Educación y Deporte.

Seleccionados los proyectos, se inicia un proceso de trabajo conjunto entre el equipo de Montehermoso y los y las artistas hasta la presentación de los trabajos al público.

Los proyectos elegidos son:

Proyecto: “Modelo y Práctica” Iñaki Gracenea Zapirain

El trabajo se centra en el cuestionamiento de las imágenes que producen las estructuras de control, siendo el eje de sus últimos proyectos la arquitectura de control y la historia de la arquitectura penitenciaria. “Modelo y práctica” estará compuesto por un compendio de obras que se fundamentan en la idea de la clasificación. Este proyecto quiere instalarse en el Centro Cultural Montehermoso posibilitando diferentes relaciones entre las obras a desarrollar desde la idea de la colección, atendiendo al contexto donde se presenta. Así, el proyecto comienza desde la Antigua Cárcel de Vitoria, la primera cárcel celular construida en el Estado.

Iñaki Gracenea, licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco en la especialidad de Pintura. Su formación ha continuado en diversos centros de arte, tales como Arteleku (San Sebastián), Kunsthauss Essen, ISCP (New York), CCA (Andratx) y John Jay College (New York). En los últimos años, ha presentado su trabajo en la Lloyd Sealy Library John Jay College/CUNY, New York, la Academia de España en Roma, Modelos (Sistema y

traducción) Fundación BBVA, y ha editado el libro sobre arquitectura penitenciaria Cahier de Fleurs. Tiene obra en el Museo ARTIUM de Vitoria y en las colecciones de Unión Fenosa de La Coruña, de Arte Contemporáneo Wurth, CAM de Valencia, de Caja Madrid, del MUSAC, AENA, Banco de España y del Ayuntamiento de Pamplona, entre otros.

Proyecto: “Metrópolis” Jon Gorospe Mauleon

Las perspectivas adoptadas para el presente proyecto son fundamentalmente dos: el uso lúdico de los espacios públicos –con la consiguiente proyección en el universo digital–, y la economía y el reciclado de imágenes. Lo que Jon Gorospe propone tendrá como resultado material una exposición conformada por una serie de piezas visuales destinadas a retratar las grandes urbes. Las imágenes han sido tomadas a partir de la aplicación “Streetview” (de Google) y de “Total View” (de su homólogo chino Baidu).

Las imágenes servirán también para la composición de grandes mosaicos: densos entramados de imágenes dispuestas en cuadrícula. La formalización del proyecto contará, en tercer y último lugar, con la edición de varios tomos –idénticos en su diseño y encuadernado– que reforzarán la idea de archivo, de documento antropológico.

Jon Gorospe, graduado en Arte en la EASD de Vitoria, Vilnius Faculty of Arts en Vilnius, Lituania. Proyecto final en Malta. Complementó su formación artística estudiando fotografía/arte con autores como: Pep Bonet, Juan Valbuena, José Muñoz, Matías Costa, David Jiménez, Xavier Rivas, entre otros. Ha obtenido diversos premios y becas.

Proyecto: “Lúcu Lúcu” Ainhoa Akutain

Este proyecto parte del término TIDAL, concepto inglés vinculado a las mareas, cuyo origen hebreo posee una clara connotación bíblica que, a día de hoy, hace referencia a la persona pagana. Es decir, al infiel no bautizado. Pagano, sin embargo, también significa la persona que paga, generalmente por abuso, las cuentas o las culpas ajenas. Titulado lúcu_lúcu permite designar espacios, crear complejidad, mediante conexiones propiamente morfológicas entre diferentes culturas marítimas, es decir, entre el pidgin cubano y los pidgin derivados del euskera, con asociaciones que se realizan desde lugares culturales inconscientes o mecanismos de seducción que se resisten a ser desvelados.

El proyecto se nutre de los recursos que la artista encuentra en cada lugar e incorpora la escultura, la fotografía, el vídeo y obras textuales o gráficas, prestando atención a la distancia siempre interpuesta entre el lenguaje, el signo y las representaciones sociales.

Ainhoa Akutain, doctora Cum Laudem Departamento de Escultura. Facultad de Bellas

Artes, UPV/EHU, con la tesis “Détournement: una posible realidad desde la praxis artística” compagina su práctica artística con la docencia académica y la tarea investigativa. Actualmente participa en el grupo de investigación vinculado al departamento de escultura de

la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, “Creación en arte y estéticas aplicadas para la ciudad, el paisaje y la comunidad. Jorge Oteiza y las Síntesis de las Artes como Metodología para el reconocimiento de la función y uso de la producción del Arte en el fin de la (Post)Modernidad”.

Proyecto: “Blue: contact line:Red ” Iratí Inoriza

El objetivo es realizar una investigación artística participada, sobre las tensiones actuales entre las tendencias posheroicas y los mitos épicos que conforman nuestras identidades. Una acción que toma como referencia la lucha libre olímpica, cuyos combates se dilucidan en un círculo de 9 metros de diámetro marcado en el tapiz de lucha. Formas plásticas en las que vamos a desestructurar las acciones de la lucha heroica, especialmente la desarrollada por mujeres, para buscar la vigencia, o no, de identidades para la épica

Iratí Inoriza utiliza en su trabajo estrategias de fragmentación, repetición y juego para la creación de piezas, especialmente vídeo-performáticas, que nacen al filo de la realidad con forma poética. En este caso el proyecto se plasmará en diferentes creaciones de vídeo 3D.

Iratí Inoriza. Master en Investigación y Creación en Arte por la UPV-EHU, ha realizado estudios complementarios en el Estudio de Performance dirigido por Tomas Ruller (Brno 2013-2014). Ha participado en proyectos como el programa de Nuevos Comisariados en Tabakalera (Donostia, 2015), INTRANSIT (2016), WHITE FARM (Sicilia, 2014), entre otros.